

Emakumeen espetxe martxa feminista otsailaren 11 / Marcha feminista a la cárcel

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA :: 19/01/2017

Euskal Herriko Bilgune Feminista cumple 15 años y queremos aprovechar para profundizar y dar pasos hacia delante en el camino de la soberanía feminista de Euskal Herria

Euskal Herriko Bilgune Feministak 15 urte betetzen ditu 2017an. Urteurrena ospatzearekin batera, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz eramango gaituen bidean sakontzeko eta aurrerapausoak emateko aprobetxatuko dugu urtea. EHBFko proiektu politikoan ditugun ildo eta erronka ezberdinei helduko diegu egingo ditugun ekimen anitzekin.

Ildo horietako bat da gatazka politiko armatuaren konponbidean (memoria, justizia, erreparazioa) feminisмотik eragitea. Eta oraingoan, bereziki *emakumeak eta kartzelaren* gaian sakondu nahi dugu eta emakumeen espetxe martxa feminista bat antolatu dugu “Libre ezin aske gara. Indar bat dabil hor” lelopean. Horregatik, otsailaren 11an Valladolideko espetxera joateko antolatu ditugun busetan izena ematera animatu nahi ditugu Euskal Herriko emakume guztiak.

Valladoliden, emakume preso politiko bakarra egon arren, emakume preso politiko guztiak barnebiltzen dituen dinamika bat jarri dugu martxan. Hauek dira beraz, ekintza honen helburu nagusiak: emakume presoek bizi dituzten zapalkuntza anitzak salatu eta espetxeen izaera patriarkala jopuntuan jartzea -eta honen adibide larri bat bizitu dugu aste honetako Valentziako gertakariarekin-; espetxeratzeak suposatzen dituen zaintza lanak, nagusiki emakumeon bizkar gainean egon direnak eta daudenak aitortzea; zigor-sistemaren inguruko gogoeta feminista bat bultzatzea; eta oro har, dispertsio politika salatzea eta euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea exijitzea. Horrez gain, emakume preso politiko guztiei gure elkartasuna eta babes osoa helaraztea eta gure arteko sarea indartzea.

Izen ematea eta informazio gehiagorako: <https://15urte.bilgunefeminista.eus>

[Castellano]

Marcha feminista de mujeres a la cárcel el 11 de febrero

Euskal Herriko Bilgune Feminista cumple 15 años en 2017 y queremos aprovechar para profundizar y dar pasos hacia delante en el camino de la soberanía feminista de Euskal Herria además de celebrar nuestro aniversario. Así pues, trataremos los diferentes retos y líneas de trabajo planteados en el proyecto político de EHBF, mediante diversos actos.

Una de las líneas de trabajo es incidir, desde el feminismo, en la resolución del conflicto político armado (memoria, justicia, reparación). Esta vez, queremos profundizar

especialmente en el tema *mujeres y cárcel* para lo que hemos organizado una marcha de mujeres feminista bajo el lema “Libre ezin, aske gara[1]. Hay una fuerza que late”. Por ello, queremos animar a todas las mujeres de Euskal Herria a inscribirse en los autobuses que hemos organizado para acudir a la cárcel de Valladolid el 11 de febrero.

Aunque en Valladolid haya una única presa política, la dinámica que hemos puesto en marcha incluye a todas las presas políticas. Estos son los objetivos de la acción: denunciar los diferentes modos de opresión de las presas y poner en el punto de mira la esencia patriarcal de las cárceles -un ejemplo grave de esto es lo acontecido esta semana en Valencia-; reconocer que los trabajos de cuidados que supone el encarcelamiento recaen básicamente sobre las mujeres; promover una reflexión feminista sobre el sistema de castigo; y en general, denunciar la política de dispersión y exigir el acercamiento de los y las presas, refugiadas y personas deportadas. Además de eso, queremos hacer llegar a todas las presas políticas nuestra solidaridad y apoyo y reforzar la red existente entre nosotras.

Para más información e inscripciones: <https://15urte.bilgunefeminista.eus>

<https://eh.lahaine.org/emakumeen-espetze-martxa-feminista-otsailaren>